

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1994-95

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

- 1) Jan-Batitek nola ezarri zituen behorrek eta gizonak
- 2) Ainhoako par hetan zer gertatu zen?
- 3) Nor ziren lamandareak eta zer ikusi zuten?

ORTZANGO ERREKAN 4

Eta, lerro lerro, ixil ixila heldu ziren orai hogoita bi gizon eta hogoita bi pottoka, biranazka, elgarretarik ehun bat urhatsetan, saratarrek kaprestutik zaukatela aintzineko behorra, senpertarrek gibelatik makilarekin akulatzen zutelarik bigarrena.

Batixta zaharra bigarren zaldietatik baten gainerat hupatua²⁷ zen, ixil ixila. Zahartua pitta bat zen, eta gero, Jan-Batit han zen, aintzin aintzinean, hofako maleziarik ez baitzezaken ikus gau ilhuan.

Gau ilhuna? O bai ilhuna zela, eta egiazki ilhuna! Noizetik noizera, larre-bidea huts-eginik, galtzen ziren bat edo bertze; eta, nahita ez, orduan, ondotik jin beharrek aintzintzen zitzaizkoten.

Ainhoako par²⁸ hetan, gibelako pottoka zonbeit irrintzireka hasi ziren, beren lagunak aintzinean sumatzearekin. Beharrik, laster ixildu baitziren, eta beharrik oraino, guardarik ez baitzen han gaindit..

Kamieten-bordarat gabe, senpertarrak, xokoen berri hobeki bazakitelakotz, aintzinean eman ziren, gibelcan aldiz saratarrak, Jan-Batitekin hala hitzartu bezala. Handik oren-laurden bat gabe gero, oro bildurik zauden Beholako gainean, Frantxixkoren beha. Gehienak izerdituak ziren, bainan altzeirua bezen hazkar bethi. Ahamen²⁹ bat ithoka jan zuteneko, xahakoak eskuratu orduko, han zuten Frantxixko: "Beholako guardak Xilarrenko-hegazpean emanak ziren, eta Ganixek, Handia eta itsasuarra, karrikako bi guardak segitu zituen Motxoko alderaino, eta gehiago ez ikusi; atherbe zerbeitetan etzanak, hori gauza jakina".

"Hots! Goazen beraz aintzina. Piarres, hemengo xori zaharra baihaut hi, lehen lehen eman hadi; gibelcan emanen nauk nihaur, Xilarrenko ihizi horiek trukets-joko zerbeit egin ere balezate. Hi, Frantxixko, hoa berriz Ganixen bidera, eta begiak eta beharriak erne egon hori".

Eta, Jan-Batitek erran bezala eman ziren oro berehala. Eta, bazoazin, larrez larre, errekarri gora, hitz erdi bat elgarri erran gabe gehiago. Hogoit eta bi gizonak, hogoit eta bi pottokak han ziren orai, oro errekan sartuak.

KABESTRU = Kaprestu. = licol de cheval de pommel

BARBIEA (Piarres)

ADITZ IKASKUNTZA.

31 Kapresturik zaukatela, 32. ez jaitzezaken ikus
 33 aintzintzen zitzaizkoten 34. bildurik zauden
 31. EDUKI - tenir - Indicatif. Imparfait

Hura = Je, tu, il, elle

Nik naukan = je le tenais
 Hik naukan = tu le tenais
 Zuk zinaukan = vous le teniez
 Harek zaukan = il le tenait
 Guk ginaukan = nous le tenions
 Zuk zinaukaten = vous le teniez
 Heiek zaukaten = ils le tenaient

32. UKAN = avoir - Potentiel Imparfait.

Objet singulier	Objet pluriel
Nik ukan nezaiken = je pouvais l'avoir	N. ukan mitzazken (1)
Hik " hezaiken	H " hitzazken
Zuk " zinezaken	Z " zintzazken
Harek " zezaken	H " zitazken
Guk " ginezaken	G " gintzazken
Zuk " zinezaketan	Z " zintzazketan
Heiek " zezaketan etc.	H " zitazketan etc.

(1) je pouvais les avoir

33. IZAN = être - Régime indirect. Indicatif Imparfait

Heiek ziren = Ils étaient.

Heiek (eur) zitzaizkiran (à moi) = ils m'étaient
 zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient
 zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
 zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
 zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient
 zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient